

Azoka, argazki eta eskulan erakusketa eta sagardo dastaketarekin hasiko da bihar ▶ 5



Espainiako Auzitegi Nazionala desagertzea eskatu du Herri Ekimenak

IBARRA ▶ Ehun lagun inguruk parte hartu zuten atzo burutu zen manifestazioan

BABESA ▶ Urriaren hasieran epaituko dituzten zazpi ibartar gazteei babesa eskaini zieten ▶ 6



Atzoko manifestazioa. M. SOROA



Herensugearen jaitsierarekin lehertu da jaia eta festarako giroa

IRURA ▶ Atzo ekin zieten Iruran San Miguel jaiei. Herriko txistulariak izan ziren suzuria botatzeaz arduratu zirenak, zanpantzarren hotsa plazan zabaltzen zen bitartean. Datorren urriaren 1a arte luzatuko da festa Iruran. NEREA URBIZU ▶ 3



ALKIZA ▶

'Oilategitik' kalean da berriro

Aldizkariaren 6. alea publikatu dute gai ugarirekin ▶ 4

TOLOSA-LEITZA ▶

Kirol ikastaro ugari, prest, negurako

Izen-ematea posible da dagoeneko ▶ 7





TOLOSA ▶ KIROLAK

Askotariko kirol jarduerak negurako, Usabal kiroldegian

Aerobika, gimnastika, yoga, igeriketa eta pilates egin ahalko dute, besteak beste, adin guztietako erabiltzaileek

IÑIGO TERRADILLOS

Dagoeneko Usabal kiroldegian prest dituzte aurtengo neguan eskainiko dituzten kirol ikastaroak. Haurrentzako hiru hilabeteko ikastaroak eta helduentzako urteko ikastaroak batetik, eta gainerakoek zuzenduriko hiru hilabetekekoen artean aukeratu ahaliko da. Izen-emateari dagokionez, urtekoetan eta lehen hiru hilabetekeoetan ematea posible da iadantik. Umeen igeriketaren kasuan, hiru hilabete guztietan, 19:00etatik aurrera egingo dira izen-emateak.

HELDUENTZAKO IKASTAROK

Aerobika. Musikaren erritmoan eginko koreografiak landuko dituzte. Astelehena, asteazkena eta ostiralean izango da, 08:00etatik 09:00etara, 09:15etik 10:15ra, 15:30etik 16:30era, 19:30etik 20:30era, 20:30etik 21:30era. Bazkideek 54,73 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 136,85. **Mantenu gimnastika.** Fisikoki sasioan egoteko ariketa ez-

berdinak eskainiko dituzte. Astelehena, asteazkena eta ostiralean 09:00etatik 10:00etara (bazkideek 54,73 euro, eta ez bazkideek, berriz, 136,85) eta astearte eta ostegunetan 19:30etik 20:30era edo 20:30etik 21:30era (bazkideek 36,50 euro, eta ez bazkideek 98) izango da.

Prestaketa fisiko intentsiboa. Kirol entrenamendua. Astelehena, asteazkena eta ostiralean, 19:30etik 21:00etara. Bazkideek 54,73 euro eta ez bazkideek 136,85.

Yoga. Gorputza eta arima lantzeko ariketa lasaia egingo dira. Astearte eta ostegunetan, 09:30etik 11:00etara edo 19:30etik 21:00etara. Bazkideek 54,73 euro eta ez bazkideek 136,85.

3. adineko gimnastika. Astelehena eta asteazkena, 10:00etatik 11:00etara izango da. Bazkideek 36,50 euro, eta ez bazkideek 136,85 euro.

HAURRENTZAKO IKASTAROK

Aerobika. Batuka eskainiko dute 8 eta 12 urte bitarteko-

tzat. Astelehena eta asteazkenetan, 17:30etik 18:30era. Bazkideek 36,49 euro, eta ez bazkideek 91,14.

Cycling. 11 eta 16 urte bitartekoentzako; astearte eta ostegunetan, 17:15etik 18:00etara. 54,40 euro bazkideek eta 133,35 euro ez bazkideek.

Umeen igeriketa. Astelehena eta asteazkena, eta astearte eta osteguna, 17:00etatik 19:30era. 45,77 euro bazkideek, eta 114,76 ez bazkideek.

Haurtxoen igeriketa. Larunbata eta igandea 10:00etatik 13:00etara. 54,73 euro bazkideek eta 136,85 ez bazkideek.

HIRU HILEKO JARDUERAK

Cycling. Bizikletan, norberak bere intentsitatean eta musikaren erritmoan egingo diren ariketak egingo dira. Astearte eta osteguna, 09:15etik 10:00etara, 13:15etik 14:00etara, 19:15etik 20:00etara eta 20:00etatik 20:45era. Bazkideek 56,40 euro eta ez bazkideek 138,30 euro. Astelehena, asteazkena eta osteguna, 19:30etik 20:15era edo 20:15etik

21:00etara. Bazkideek 80,85 euro eta ez bazkideek 170,20 euro ordaindu beharko dituzte.

Helduen igeriketa. Mailaka igeri trebeziaren lantzea. Astearte eta ostegunetan, 08:00etatik 09:00etara, 09:00etatik 10:00etara, 19:30etik 20:30era eta 20:30etik 21:30era. Bazkideek 45,77 euro eta ez bazkideek 114,46.

Pilates. Arnasketa eta lasaikuntza aktiboaren bitartez egokitzapen fisikoa lortzeko lana. Astelehena eta asteazkena 09:15etik 10:00etara eta 18:30etik 19:15era, eta astearte eta ostegunetan 18:00etatik 18:45era eta 18:45etik 19:30era. Bazkideek 56,40 euro eta ez bazkideek 138,30.

Akuagyma. Uretan egingo diren inpakturik gabeko ariketa ezberdinak. Astelehena, asteazkena eta ostirala, 08:00etatik 09:00etara, 09:00etatik 10:00etara, 19:30etik 20:30era eta 20:30etik 21:30era. Bazkideek 54,40 eta ez bazkideek, berriz, 133,35 euro.

Tai-Chi Chuan. Astearte eta ostegunetan 09:30etik 11:00etara eta astelehena eta asteazkenetan 20:30etik 22:00etara. Bazkideek 77,95 euro, eta ez bazkideek 164,15.

Kempo defentsa pertsonala. Astelehena, asteazkena eta ostiralean, 20:00etatik 21:00etara. Bazkideek 54,40 euro, eta ez bazkideek 133,35 euro.

Karate. Astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 21:30era. Bazkideek 54,40 euro, eta ez bazkideek 133,35 euro.

Areto dantzak. Asteartero, 10:30ean, 15:30ean eta 19:00etan. Bazkideentzat 60euro, eta ez bazkideentzat 150euro.

ALEGIA ▶

Denboraldi berriari ekin dio Intxurrek

Intxurre pilota eskolak eskuzko denboraldi berriari hasiera eman dio eta infantilen deialdia egin nahi du. 1993 eta 1994an jaiotako neska-mutilak astelehenetik aurrera hasiko dituzte entrenamenduak, beraz, parte hartu nahi duenak astelehenetan, hilaren 25ean, azaldu besterik ez du. Entrenamendua saioak astelehenetan eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara izango dira.

ALEGIA ▶

Kultur eta kirol ikastaro andana egiteko aukera

Alegiako kultur eta kirol etxean prest dituzte ikasturte berriaren eskainiko dituzten jardunaldi eta ikastaroak. Kirol ikastaroetan ondorengoak prestatu dituzte: aerobika, astelehena, asteazkena eta ostiralean, 18:30etik 19:30era; aerobik txikia (12 eta 16 urte bitartekoentzako), astelehena eta asteazkenetan, 17:30etik 18:30era; 3. adinekoen gimnastika astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 12:00etara. Bestalde, kultur tailerretan, ondorengoetan aukeratu ahaliko da: eskulana, asteazkenetan, 10:00etatik 12:00etara edota 15:00etatik 17:00etara; memoria tailerra, asteazkenetan, 11:00etatik 12:00etara. Izen-emateak dagoeneko irekita daude eta hilaren 29ra arte egingo dira zabalik. Ikastaroak urriko lehenengo astean hasiko dira.

TOLOSA ▶ EUSKARA

Laskorainek antolatuta, Erniozabalera txangoa izango da bihar, Euskaraz Bizi mendi Buzoia jartzeko

«Euskara bultzatzeko konpromisoari eusteko» burutuko dute ekintza hau parte-hartzaileek

ERREDAKZIOA

Orain dela 20 urte Laskorain Ikastolak, beste hiru ikastolekin batera Euskaraz Bizi egitasmoa jarri zuen abian. Parte hartzen dutenen artean daude ere, Gasteizko Euskararen aldeko lagunak, Atarrabiako Paz Ziganda Ikastola eta Lizarrako Lizarra Ikastola.

Geroztik fruitu ugari eman dituen proiektu honek urtero hitzordu bat jartzen du data hauetan. Hala, Euskal Herriko

mendi batean Euskaraz bizi eta Argitxoren omenez buzoia jartzen dute.

«Familia eta lagunekin batera egun ederra pasatzeko ezezik euskara bultzatzeko konpromisoari eusteko ere aukera paregabea izango dugu bertan elkartzen garenak» hala deritote Laskorain Ikastolakoek.

Aurtengo antolaketaren txanda Laskorain Ikastolari egokitu zaio, eta ospakizunera-ko Erniozabal mendia aukeratu dute. Hori dela eta, bihar, hi-

lak 24, egun pasa egingo dute eskualdeko mendian.

Egitarrari dagokionez, 10:00etan abiatuko dira Urkizua auzotik. Erniozabalera igotzeko zonalde honetatik, ordu eta erdi behar da gutxi gora behe- ra, beraz, «lasai egiteko moduko ibilbidea da». Aldapa ere ez da oso handia, azken 20 minutuak izan daitezke larrik gogorrenak.

Baina antolatzaileen esanetan, «goiko bistak merezi du». Zerua garbi egonez gero, tonto-

rretik, Ernio, Aizkorri eta Txindoki ikusteko aukera baitago, eta baita itsasoa ere.

Gora iritsi ondoren, 11:30ak aldera, Buzoiaren kokapen ekitaldia burutuko dute. Ordu bete beranduago berriz, behearantzko bideari ekingo diote. Hala ere, bidean atsedenaldi bat egingo dute hamaietakoak banatu eta jateko. Urkizura iristean, bazkaltzeko garaia izango da. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Azkenik jolasak egingo dituzte.

TOLOSA ▶

Kilometroetara joateko autobusa Tolosatik

Urriaren 1ean izango da aurtengo Kilometroak ikastolen aldeko festa. Oiarzunen. Urtero bezala, aurten ere, Tolosatik autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara taldeak hara joateko. Bertatik azaldu dutenez, datorren astelehenetik aurrera, hilak 25, erosteko moduan izango dira autobuserako txartelak. Horretarako, Galtzaundiren egoitzara joan beharko da, Nafarroa etorbidea 6 behean, edota, 943 65 50 04 telefono zenbakira hots egin, bestela.

IRURA ▶ JAIK



Agurra. Festei hasiera emateko, Marimi Ugalde alkateak bere agurra luzatu zien irurarrei. Hizketaldian gogoratu zituen, herritik kanpo daudenak eta Mejikon, Munduko Pilota Txapelketan dihardutenak. E.E.



Zanpantzarrak. Herensugearen jaitsierarekin batera, zanpantzarrak lurdia astinduz hasi ziren, eta batektik bestera bueltaka ibili ziren jendearen artean. E. EZEIZA



Herensugea. Jaiak iragarri, San Migel plaza zeharkatu zuen airez, Udaletxeko lehiotetan sartu arte. Hala, ahotik sua zeriola, herritar guztien arreta eskuratu zuen animaliak. E. EZEIZA



Suziria. Aurten, lehenengo suziria herriko txistulariek bota dute, urteetan zehar egindako lana eskertuz. Hala, banan bana, suziriak jaurtikiz joan ziren hiru protagonistak. N.URBIZU

Udazkenarekin batera, ongi etorri Sanmielei

Heavy zaleentzat hitzordu garrantzitsua gaur, 24:00etatik aurrera, Su ta gar eta Pikutara musika taldeekin

ESTI EZEIZA

Hasi dira jada Sanmielak. Herensugearen jaitsierarekin batera, atzo abiatu ziren eskualdeko udazkeneko lehen jaiak.

19:30etarako jendea gogotsu eta indarrarekin zegoen jaiari hasiera emateko. Hala, suziriaren jaurtiketarekin eta Ma-

rimi Ugalderekin agurrarekin batera, korri egiteko prest jarri ziren gaztetxoak. Izan ere, buruhandi eta erraldoiak han zeuden itxaroten, inguruan harapatzen zituztenak astintzeko gogoz.

Gaurkoan berriz, 11:00etan Marrazki Lehiaketa izango da txikienentzat San Migel plazan.

Jarraian, 12:00ak aldera, patata tortilla lehiaketa egingo da toki berean. 13:00ean berriz, apar-festa egingo dute Zaharren Biltokiaren aurrean. Ondoren, gazteen dantza-soka izango da enaprantzan. Hau amaitu eta gero, Zaharren Biltokira joango dira gazteak bazkaltzera, eta gaztetxoak be-

rriz, San Migel plazan. 15:30etan, haurrentzako ludoteka eta tailerrak izango dira Trinketeen. Segidan, 17:30ak aldera, buruhandiak Trinketik Loatzo plazara kalejiran joango dira. Eta etxeko txikienentzako antolatutako ekitaldiei amaiera emateko, 18:00etan, Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia izango da.

20:00etan sagardo dastaketa egingo dute San Migel plazan. Hemen, berrikuntza gisa, aurten sagardogileei omenalditxo bat egingo zaie. Gaurdian berriz, Pikutara eta Su ta gar musika taldeek kontzertua eskainiko dute. Hamabost minutu beranduago hasiko da ere Alazan taldearen *Coctel Latino* dantzaldia. Hau, garbilekua ondo plazan izango da.

TOLOSA ▶ KIROLA

Gaur jokatuko dira Tolosa Kup-eko lehen partidak

Bi egunetan zehar hamar norgehiagoka jokatuko dira Uzturpe kiroldegian

ERREDAKZIOA

Atzo, Tolosa Kupeko asteburu honetako partidaren inguruan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratutako informazioa oker zegoen. Bertan izendatutako norgehiagokak ez baitira gaur eta bihar jokatuko direnak. Hiru hilabeteetan zehar, asteburuero izango dira norgehiagokak, hauetako bakoitzean bederzti edo hamar partida jokatuko direlarik.

Ligaskari hasiera emanaz, asteburu honetan 20 taldek jokatuko dute. Txapelketako lehenengo partida gaur izango da, 16:10ean, eta 35 minutu ondoen hurrengo hasiko da. Horrela, 19:40ak arte. Hurrengo hauek izango dira jokatuko diren norgehiagokak: 16:10ean A1-A2en aurka; 16:45ean, A3-A4rekin; 17:20ean, B1-B2en kontra; 17:55ean, G3-G5ekin; 18:30ean, C1-C2en aurka; eta 19:05ean, C3-C4ren kontra. Partida hauen kontrol lana Anayet Ibarra, Uzturpe Klub eta Baktxusek burutuko dute, eta arduraduna Transporte escolar izango da.

Eta bihar, igandearrekin, lau neurketa izango dira jokoan. Lehena, 16:10ean izango da, eta D1k D2ren aurka jokatuko du. Jarraian, H3 eta H5en garaia izango da. Ondoren, E1, E2ren aurka izango da. Eta azkenik, 17:55ean, E3 eta E4 lehiatuko dira. Partida hauen kontrola Rayo Vaticanok eta Ama Dambalamek burutuko dute, eta arduraduna Errekalde izango da

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberriak ▶

**Pako Etxeberria
Berakoetxea 'Patxiku'**
('Naparra' desagertutako gudariaren aita)

Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.

Alegiko lagunak

Oharra: hileta-elizkizunak, GAUR, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan.
Alegiko elizan elkartuko gara.

ALEGIAN, 2006ko irailaren 23a

urteurrena ▶

Nikolas Amundarain Otegi

Nikolas, hil haizela esan didatenean, poliki, ez nezan min handiegia har; hitzak hautatuz, umilki kontatu didatelanik hire hiltzea nola gertatu den... negar egin diat hik utzi leku hutsari begira; isileko barrea egin diat Bixente aitaren ondora, Manolita amaren altzora joan haizela fedetak barruan tinko esan didanean.

Sendikoek

meza ▶ Gaur, larunbata, 18:30ean, Itsasondoko Andre Mariaren elizan.

ITSASONDO, 2006ko irailaren 23a

VILLABONA ▶ KULTURA

Zirkoaren Eguna egingo dute gaur Gaztetxean

Malabareen tailerra eta Manic Freac pailazo gaztearen emanaldia, 18:00etatik aurrera



Manic Freac pailazoa. HITZA

ERREDAKZIOA

Zirkoaren Eguna antolatu du gaurko Villabonako Gaztetxeak. «Zirkoa ez delako umeen kontua soilik, adin guztietako jendea inguratzea gonbidatzen dugu egun dibertigarri honetara», azaldu dute Gaztetxeak.

Hainbat tailer eta ikuskizun antolatu dituzte, guztiak zirkoaren mundua gertuagotik ezagutzeko. 18:00etan emango diote hasiera egunari tailer

ezberdinekin, hala nola, malabareak egiten ikasi eta hauek erabiltzeko. «Tailer hauetarako Atarrabiako Gas Malabare Taldea izango dugu gurekin, malabareen mundu zabala nolako den erakusteko», diote antolatzaileek.

Argentinatik Villabonara

Ondoren, 19:00ak inguruan, Argentinatik Villabonara bere ikuskizuna erakusteko etorri den pailazo gaztea: Nacho Rey, artistikoki Manic Freac izenekoa. «Rey 22 urteko mutil gaztea izan arren, urteak daramatza Europatik zehar bere akrobazia, malabare eta xelebrikeriak txoko guztietan ikustarazten», azaltzen dute antolatzaileek. «Bere ikuskizunetan malabare trebetasun, akrobazia eta ekilibriemoekin ikuslegoa bereganatzea lortzen du», gaineratzen dute. «Xamurtasunetik zentzugabetasunerako bidea egiten du, ondoren gure naturaltasun sentiberena ikutzeko, barnean daramagun umea. Beraz, egun honetan gerturatzen den orok Europa guztian zehar algarra eta harridura sortu duen mutila ikusteko aukera izango du».

hilberriak ▶

Ignacio Aizpuru Unanue

Jauna

Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—



Bere emaztea: Mercedes Odriozola Ariz; seme-alabak: Iñaki eta Marisa Zeberio; biloba: Laida Ju; anai-arrebak, koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oititz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzete GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPI T'ERDIETAN, SAN BIZENTE parroki elizan, dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Arraindegi 8-5. ezk.

Oharra ▶ gorpua Vascongada Ehorzetako bellatokia (Errekalde auzoa) 15:45ak arte egongo da.
DONOSTIA, 2006ko irailaren 23a

ALKIZA ▶ GIZARTEA

‘Oilategitik’ herriko urtekariaren 6. alea ere gai ugariz beteta

Kubako Alquizar herriarekin senidetzeko egindako hartu-emanen berri ematen da, besteak beste, zenbaki berrian



Kubako Alquizar herriaren eliza. HITZA



Etxe baserria, azken alean azaltzen denetako bat. OILATEGITIK



Diez, Agirre eta Egibarrek egindako mahainguruko une bat. OILATEGITIK

ERREDAKZIOA

Oilategitik Alkizako urtekariaren seigarren alea argitaratu berri du izen bereko kultur elkarteak. Herriko jaien hasieran egin zuten aurkezpena. Aurten ere gai ugariren berri ematen du 64 orrialdeetan.

Gai nagusienetakoa Kubako Alquizar herriarekin senidetzeko egindako hartu-emanekin lotuta dago. Beste hainbat erreportai eta elkarrizketa ere azaltzen dira, tartean Alkizako famili batek adoptatu dituen hiru haur erusiarrei buruzkoa; Rafa Diezek eta Joseba Egibarrek egindako mahaingurua; Amixuri Alkizako abesbatza elkarteak; Santa Kruz gerriaria Alkizan; Aranzabe pilotariari buruzkoa; Erriotik egurra airez jaisten zenekoa, Alkizako mugarririk eta herri mugak...

Beste hainbat atal ohikoak dira *Oilategitik* aldizkarian: baserrien argazkiak, toponimiari buruzko informazioa, alkizar ezagunei buruzkoa —ale honetan Migel Irazusta eskultore barrokoa—, urtearen errepa-soa argazkiekin, herriko argazki zaharrak, denborapasak...

Lan mardula egiten dute urtero *Oilategitik* Kultur Elkartekoek eta deialdia luzatzen dute herritar gehiagok parte hartzeko aldizkaria egiten. *Oilategitik* etxeetara banatu dute eta herriko tabernetan ere bada alerik hartzeko. Interneten ere badago aldizkaria: www.oilategitik.net web orrialdean, eta orain arte argitaratutako zenbaki guztiak aurkitu daitezke.

hitza

Harpidedunen
txokoa

Irailak 23 eta 25ean
Zinemaldirako sarrerak
eskuratu ditzakezu!!!

Parte hartzeko,
deitu zenbaki honetara:
678 281 442
(Larunbata eta astelehena 09:30-14:00)

ZORTE ON!!



BIDEGOIAN ▶ KULTURA

XVII. Kultur Asteari erakusketa bitxiarekin ekingo diote bihar

Kultura eta ohiturak oinarri hartuta, herritarrek hauetaz gozatzeko aukera izango dute bihartik larunbatera arte



Aurten ere, marrazki lehiaketa arrakastatsua ekingo dute. Irudian, iazko partaide batzuk. IMANOL GARCIA

NEREA URBIZU

Bihar goizean Bidegoango XVII. Kultur Asteari hasiera emango diote. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte horretarako. Bihar, asteartean, ostiralean eta larunbatean izango dira ekitaldi guztiak. Biharkoan, erakusketa berezi bat izango da, tresneri zaharra, egur taila, pilotak eta erremintak, besteak beste, ikusgai izango delarik. Bestalde, iaz izan zuten harrera ona ikusita haurrentzat proposak izan ziren ekintzak ez dira faltako aurtengoan. Enkarni Genuaren txotxongilo saioa ikusi ahal izango da baita ere.

BIHAR

Azoka. Goiatzen, plazan bertan izango da, goiz osoan zehar. Produktu ezberdinak izango

dira, bai ikusgai eta baita erosteko ere.

Erakusketak. Egur taila, make-tagintza, pilotak, zestoak, aintzinako erreminta, larrua eta abar.

Dastaketa. Txakolina eta sargardoa edan ahal izango da, sardina erreez lagunduta. Goizean zehar eskunik dute.

Eskulanak eta argazki zaharrrak. Eskola etxeko lokalean herriko argazki zaharren eta zenbait herritarrek egin dituzten eskulanean erakusketa izango dira. Hau ere, goizean zehar izango da.

ASTEARTEA, HILAK 26

Hitzaldia. 14:30ean izango da; *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* izango da jorratuko duten gaia. Eneko Diazek emango du hitzaldia, balio anitzeko zentruan.

tzaldia, balio anitzeko zentruan.

OSTIRALA, HILAK 29

Hitzaldia. 21:00etan Haimar Zubeldiak eta Iñigo Chaurreau txirindulariak tertulian ariko dira, udaletxeko batzar aretoan.

LARUNBATA, HILAK 30

Jolas parkea. Egunean zehar haurrentzat jolas parkea izango da. Goizean, 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 18:00etara.

Marrazki lehiaketa. 15:00etatik aurrera izango da.

Txotxongiloak. 18:00etan Erreka Mari Txotxongilo taldea, Enkarni Genuaren eskutik.

Txokolatada. Kultur Asteari bukaera emateko txokolatada, zapore gozoarekin.

ALEGIA ▶ NATURA



Saiak teiltua nahiago

Erredakzioa ▶ Asteazken arratsaldean putre gazte bat azaldu zen Alegiko udaletxeko teiltuan, dirudienez, ahul samar, egun batzuetan jan gabe. Ordu batzuk eman zituen bertan, eta hegan egiten saiatzean Alegiko bizilagun baten etxeko lorategira erori zen. Bertakoek basozainari deitzea erabaki zuten orduan. HITZA

IBARRA ▶ JAIKAK



Jubilatuen festak, aurrera!

N. Urbizu ▶ Juan Aristondo, Atilano Hernandez eta Fermin Garcia izan ziren aurtengo Ibarako Bizi Nahi jubilatuen elkarteko jaien txupinazoa botatzeaz arduratu zirenak. Gaur 11:30ean toka txapelketa izango da, hamaiketakoaz lagunduta, eta 18:00etan haur jaialdias, txokolaterekin batera. MADDI SOROA

nahi duzen bezain urrutiti heldu daitezten

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Planak efektina emango du bizitza osoan

Euskadiko Kutxaren Plan Bat aurrezki-plana 0 urtetik 18 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta. Formula horri esker, hilean 30 eurotik hasita, kapital bat osatuko duzu pixkanaka zure seme-alabak handitzen direnako: haien ikasketetarako, haien proiektuetarako, haien ilusioetarako...

Segurafatu zure etorkizuna

Haien lehenengo plana seguruen izatea nahi dugu, Euskadiko Kutxan. Plan Batekin lasai egongo zara zuri zerbait gertatuz gero babestuta egongo direla jakinda; izan ere bizi-asegurua duenez, kapitala ordaintzen jarraituko du, zure seme-alabek 18 urte bete arte.

Planak efektina emango du bizitza osoan

Plan Bat aurrezki-planak gutxieneko errentagarritasuna bermatzen dizu bere bizitza osoan. Horrela, hasieratik jakin dezakezu zure seme-alabak zenbat diru edukiko duen 18 urte egindakoan.

Eta, gainera, abantaila fiskalak dituz

Plan Bat aurrezki-planak tratamendu fiskal ezin hobea du; izan ere, bizi-asegurua duenez, planak sortuta etekinen %75 murriztu daiteke PFEZan.

Seguros Lagun Aro Vida SAREkin kontrataturiko aseguruak, Euskadiko Kutxa horren agente-erregistroko 5,000 zenbakiko aseguru-agentziako sozietatea da.

IBARRA ▶ KULTURA

Alurren dantza eskolak prest 2006-2007rako

Dantzan dakitenak eta ez dakitenak, helduak eta haurrak, denek dute aukera

ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr dantza taldea 2006-2007ko ikasturte berriko prestaketa lanetan ari da jada. Gauzak horrela, urrian ekingo diote ikasturte berriko eskolei.

Dantza eskola guztiak urriko lehen astean izango dira, eta urte beteko iraupena izango dute bi talderen kasuan izan ezik. Bi kasu horiek helduen taldeei dagokie, izan ere, dantzan ez dakitenek lau hila-beteko ikastaroa egingo dute urritik urtarrilera. Gauza bera gertatzen da Edurekin eskolak egingo dituzten helduekin.

Matrikula egiteko, Kultur Etxean eman behar da izena, hilaren 30a baino lehen.

Ikastaroak ordaintzerako

orduan deskontuak izango dira. Haurren dantza ikastaroi dagokionez, bi senide edo hiru senidek izena emanez gero, merkeago izango du ikastaroaren prezioa. Edurekin eskolak dutenen kasuan, berriz, bi edo senide gehiagok izena emanez gero, %5eko deskontua izango dute matrikulazioan.

Ordutegiak ongi ez datozkionak, 635 75 70 48 telefono zenbakira deitu dezake ikastaroen antolatzaileekin hitz egiteko.

Gogoratu, helduen taldeak, Eiderren taldeak eta Eduren taldeak ostegunean Iñaki Arratibelen eskutik hitzaldia izango dutela Kultur Etxean. Beraz, eskola lehen eguna hitzaldiarekin hasiko da.

ORDUTEGIAK ▶

Haurrak	eguna	ordutegia
4 - 5 urte	astelehena	16:30 - 17:30
5 - 6 urte	astelehena	17:30 - 18:30
7 - 8 urte	astearte eta ostirala	16:45 - 17:45
8 - 9 urte	astearte eta ostirala	17:45 - 18:45
9 - 12 urte	asteazkena	17:00 - 19:00

Edurekin klaseak	eguna	ordutegia
Berriak		
Dantzan dakitenak 12-15 urte	astearte	17:00 - 18:30
15 urtetik aurrera	astearte	19:00 - 20:30
Aurreko urteetako taldeak		
Gazteak I	osteguna	17:00 - 18:30
Gazteak II	osteguna	18:30 - 20:15
Gazteak III	osteguna	20:15 - 22:00
Beteranoak	asteazkena	20:30 - 22:00

Heldu eta gazteak	eguna	ordutegia
Berriak	astelehena	19:15 - 20:30
Mirenen taldea	astelehena	20:30 - 22:00
Iñakiren taldea	astearte	20:30 - 22:00
Eduren taldea	ostirala	10:00 - 11:30

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tolosaldeko taberna baterako sukaldetan dakien pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 686 03 29 01ra.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentukoa. 635 74 52 91.

Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar da, lanordu osorako. 652 76 90 92.

Klase partikularrak. Majisteritzan diplomatura eskaintzen da klase partikularrek emateko. L.H eta D.B.Hko ikasleei zuzendua.

Interesatuak deitu 687 67 37 00ra

SALGAI

Pisua. Leitzan pisua salgai, 100 m², igogailuarekin eta trastelekuarekin. 699 46 13 65.

Txakurkumeak. Setter ingeles (Leveling) arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilarogretan trebeak. 647 14 40 70.

Furgoneta. Mercedes Vitoa salgai, 110D. Mistoa. 1997koa. Interesatuak deitu 646 13 05 47ra.

Egurra. Tximenetako zaitua dagoen pago enbor lehorrak salgai 646 53 71 15.

IBARRA ▶ POLITIKA



Espainiako Auzitegi Nazionalaren aurka atzo egindako manifestazioaren une bat. HITZA

«Espainiako Auzitegi Nazionala desagertu dadila» eskatu dute

Herri Ekimenak deituriko atzoko manifestazioak babesa eman die epaiketaren zain dauden zazpi gazte ibartarrei

ERREDAKZIOA

Audientzia Nazionala, Stop, epaiketa guztik eten! lelopean burutu zen atzo manifestazioa Ibarrako aleetatik. Herri Ekimenak deituta, 100 lagun inguruk hartu zuten parte, urria hasieran epaituko dituzten Ibarrrako zazpi gazteei babesa emanez. Ia 500 urteko espetxe zigorra eskatzen dizkiete zazpi inputatuei.

«Auzitegi Nazionalak bere ekinbide errepresiboari eutsi» nahi diola adierazi du Herri Ekimenak eta hil honetan hasi eta urriara bitartean Espainiako Auzitegi Nazionalan burutzen ari diren 114 euskal herritarren epaiketak gogoratu dituzte. Era berean, «euskal herritarren eskubide zibil eta politikoko zapaltzen jarraituko dutela» eta «euskal preso politikoei salbuespeneko neurriak

ezartzen eta mantentzen jarraituko dutela» salatu dute.

Bost puntutan bereizi dute Auzitegi Nazionala desagertzeko eskaera. Hasteko, «zitazio, debeku, jarduera politikoe-tako publikoarekiko jazarpen, fidantza iskanbilatu, epaiketa eta bihurtzeko espetxe zigorraren aplikazioen harira, bizitza politikoa behin eta berriro baldintzatzen» duen tribunaltzat definitu zuten Auzitegi Nazionala.

Tribunalak Euskal Herrian duen esku-hartze «gaitasun amaiezinar» dagokionez, Auzitegi Nazionala «arma errepresibo bezala jokatzeko ari dela» eta «espainiar estatuarren inposizio markoa gainditzeko duen sektore ororen kontra» zuzentzen dela uste du Herri Ekimenak.

Euskal Herrian bizi den su-etenen egoeraren inguruan, Auzi-

tegi Nazionalaren atzean «erabaki politiko maltzurra dagoela» iritzi du elkarteak, «urteetan zehar Eskal Herrian espainiar estatuko erabili duen gerra eta zantzetarako tresneria osoa legitimitatu» eta «helburua prozesua desitxuratzeko» dela, hain zuzen ere.

Laugarren puntuari dagokionez, honako galdera luzatu nahi izan dio Ibarrako Herri Ekimenak klase politikoari: «Posible al da euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzea baldin eta erabakitze ahalmen hori zapuzteko bere momentuan diseinatutako izan ziren Auzitegi Nazionala bezalako egitura errepresiboak indarrean mantentzen badira?».

Azkenik, Ibarrako Herri Ekimenak euskaldunontzat «Auzitegi Nazionala desagertu egin behar dela» exijitu dio Zapateroren Gobernuari.

Taberna · Jatetxea
alokatzen da
— Alegian —
943 65 28 16
629 91 19 36

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza librean betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udalekxetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrazio

laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

ANOETA ▶

Udal pilota eskolan etzi hasiko dute ikasturtea

ERREDAKZIOA

Anoetako Udal pilota eskolan etzi bertan hasiko dira klaseekin, Udaletik jakinarazi dutenez.

Pilotalekuan elkartuko dira, honako ordutegi hauekin (eskolak ordu betekoak dira): aurrebenjaminak (1999an jaiotakoak), astear-tetan, 17:15ean; benjaminak (1997 eta 1998koak), astear-tetan, 18:15ean eta ostirale-tan, 17:15ean; eta alebinak (1995 eta 1996koak), astelehenetan eta asteazkenetan, 17:15ean.

Alebinak eta benjaminak bina taldetan banatzeko, lehenengo astean ebaluaketa test batzuk eginen omen dituztenez, aditzera eman dute, garrantzitsua dela dagozkien bi egun horietan, ikasle guztiak azaltzea.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KIROLAK

JAIONE ASTIBIA

Udako geldialdia bukatuta, 2006-07 ikasturtea hastear dira Leitzako kiroldegian ere eta horretarako datozen hila-beteetarako kirol mota desberdinen ikastaroak egiteko aukera jarri dute eskura.

Bertako azpiegiturak erabil-tzeaz gain (kantxa, gimnastika gela, pilotalekuak, skuash-a, saunak) eta eskolak ematen dion erabilpenaz gain, kirolde-giko bazkideentzat ez eze, «ki-rola egin nahi duen guztiaren-tzat», beste zortzi ikastaro ema-teko asmoa dute: «Gehienak aurreko urteetan ere eman izan ditugunak dira; jende askok parte hartu du horietan eta aurten ere, zenbaitetan, talde bat baino gehiago sortuko di-ra», azaldu dute bertatik. Hala, esate baterako pilates-a egite-ko, lau talde aurreikusituzte, ordutegi eskaintza anitzarekin: «Gainera, pilates-a da talde tti-kian egin beharreko kirol eta bat, ariketa leunak egiteko, kontzentrazioa ere beharrez-koa delako», zehaztu dute.

Parte-hartzaileen kopurua mugatua duen beste ikastaroa gazteei bideratuta egitekoa du-ten muskulazio gidatua da; gimnastika aretoan monitorea-ren esanera, bertako tresnetan ariko direlako.

Kirol ikastaroak egin ahal izateko aukera zabala eskaini dute

Kiroldegian ikasturte berriari hasiera emanen diote eta ikastaro desberdinetan izena emateko epea zabalik dago

Beste ohiko mantenimendu-ko gimnastika, haurren kara-tea, aerobika eta step ikastaro- ez gain, ordea, aurten beste bi berri ematekoak dituzte. Bate-tik GAZB modura izendatu du-

tena, «gluteoak, abdominalak, zangoak eta besoak indartze-ko» ariketak direnak; bestetik GAZB eta batuka batera egiten direnak, hots «indarrezko ari- ketei, abestien koreografiak

gehituta, saio gogorrek», moni-toreak berak dionez.

Ikastaro hauetan interesa dutenek, izen-ematea, kirolde-gian bertan egin ahal izango dute noiznahi.

2006-07KO KIROL IKASTAROAK ▶

Ikastaroak	eguna	ordutegia	kopurua
Kiroldegia			
Aerobika/Stepa	asteartea eta osteguna	19:30-20:25	10 lagunetik gora
GAPB-GAZB	astelehena eta asteazkena	20:00-20:45	10 lagunetik gora
Batuka eta GAPB-GAZB	asteartea eta osteguna	11:00-11:55	10 lagunetik gora
Pilatesa	asteartea eta osteguna	10:00-10:55 17:30-18:25 18:30-19:25 20:30-21:25	6 lagunetik 15era
Yoga	asteazkena	16:00-18:00	6 lagunetik gora
Haurren karatea	asteazkena eta ostirala	18:00-19:00	10 lagunetik gora
Mantenimenduko gimnastika	astelehena eta asteazkena	19:00-20:00	10 lagunetik gora
Gazteentzako muskulazio gidatua	astelehena eta asteazkena	18:00-19:00	6 lagunetik 10era

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ikasitakoa erakutsiz batukada herrian barrena

J. ASTIBIA

Asteazkenean hasi zuten per-kusio ikastaroa Ateka Beltz Gaztetxean; hiru egunetan ari-tu dira danborrak, tinbalak, zintzarriak, marakak eta beste hainbeste tresna eskutan, oi-narrizko erritmo batzuk ikas-ten, eta gaur iluntzean, 20:00-20:30 aldera herrira aterako dira ikasitakoa erakustera: «hamarrak aldera arte, he-rrian bueltaka ibiliko gara,

giro pixka bat jartzen», azaldu dute parte-hartzaileek.

Bezperako saioaren berri izanda-edo osteguneko saiora, adin guztietakoak nahasturik, 27 lagun joan zirela esan dute; eta atzorako gehiago espero zi-tuzten: «Hasi eta berehala, erritmo desberdinak ikasten hasi ginen, pausoak, noiz sartu eta noiz gelditu... Irakaslea ere oso dinamikoa da eta erraz sartzen da», zioten. Gaur era-kiutiko dute ikasitakoa.



Asteazkenean, ikastaroko lehen saioan, ia formazioan jarrita. J. ASTIBIA

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU
Salgai (Irura). Guztiz eraberritua. Salgai (Tolosa).
Pisua San Frantzisko, 17, 140 m2. Bistekin.
Salgai (Tolosa).
Pisua San Frantzisko 41.ean.
Salgai (Tolosa). Pisua Larramendi kalean.
Salgai (Tolosa). Ileapaindegia lurre auzoan.
Salgai (Tolosa).
Belardenda, kale Nagusian.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizinalokala.
Salgai (Villabona).
Lokala dendarako edo ofizinarako.
Salgai (Ibarra).
Garajeak, Euskal Herri kalean.
Alokatzeko. Garajeak. Araba etorbidean, San Frantzisko eta lurre auzoan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



AGENDA

DEIALDIK

Anoeta. Alkartasunak babarrun jatea antolatu du, hilaren 29rako, San Miguel egunerako. Izen-ematea egoitzan bertan, 18:30etik 20:00etara.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatuta eta pentsiodunen jaiak: 11:30ean, toka txapelketa. Irabazleei garaikurra emango zaie eta ondoren, partaideentzat hamaiketako Ibarra tomate eta piperrekin; 18:00etan, haur jaialdia: txokolatada, opariak banatuko dira eta jokoak egingo dituzte.

Irura. Haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik dago irailaren 29ra arte. Izena emateko orria haurreskolan eska daiteke egunero, 08:00etatik 15:00etara.

Lizartza. Bihar, 12:00etan, Inaren moniloaren parean ekitaldia.

Tolosa. Aitzol Udal euskaltegian ohiko taldeak martxan hasi dira, eta autoikaskuntzakoak, berriz, etzi, astelehena, hasiko dira. Dena den, oraindik ere, izen emateko aukera izango da talde horietako batean sartzeko, 943 65 10 06 zenbakian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara arte.

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebrea. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kaskoa buruan eta...

ANOETA ▶ Joseba Agirrezabala txirrindularia bizikletaren inguruko aholkua ematen aritu zen, atzo, Anoetako Ikastolan, Autorik Gabeko Europako Egunean

IMANOL GARCIA

Autoaren ordeko natura bizikleta da. Txikitatik ikasi ohi dugu nola erabili bi gurpilduna. Halere, zenbait aholku beharrezkoak izaten dira bizikleta ondo mantentzeko eta segurtasuna bermatzeko. Horretan aritu zen atzo, Joseba Agirrezabala txirrindulari anoetarra bere herriko ikastolan, Autorik Gabeko Europako Egunean.

Ernioaldea Udaltalde 21eko hainbat udalek ekitaldiak antolatu dituzte egunotan Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan. Agirrezabalak eskaintako tailerra, horren baitan kokatzen da. Bizikleta hartzen denetik uzteraino egin beharrezko guztiak esplikatu zituen: «Azterketa txiki bat egin behar da, batez ere gurpilak eta balaztak. Gero, buru gainean beti kaskoa eraman behar da». Hortik aurrera, errepidean ibiltzeko aholkuak eman zituen eta taldean joanez gero, atzekoari bidean aurkitutako oztopoez abisatzea garrantzitsua dela azpimarratu zuen. Abilezia jokoak ere egin zituzten tailerrean, bizikleta hobeto erabiltzen eta oreka mantentzen ikasteko.

Beste zenbait ekitaldi ere antolatu ziren atzo Anoetako Herri Ikastolan bertan. Goizean goiz elkartu ziren ikasleak batera ikastolara bizikletan joateko eta arratsaldean ginkanak antolatu zituzten, hori ere bizikletaren gainean. Izan ere, bi gurpileko garraioa gure eskualdean mugitzeko aukera garbienetakoa da.



Bizikleten gainean saskibaloian aritu ziren DBHko ikasleak. I. GARCIA



Bizikleta gaineko oreka landu zuten jokoetan. I. GARCIA

AGURRAK



URTE ASKOAN
Aitziber Aiestaran (Ibarra). Gaur 5 urte. Zorionak sorgintxo! Zure familiarean partetik, eta bereziki, Ane, Aratz, Ttuttu eta izurdeen partetik.

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

hitza
agurren
tarte



KILOMETROAK 06 :)
URRIAK 1
OLARTZUN
inGoYeU! inGoYeU!
www.kilometroak.net

PRIMERAN PASA PASATU GABE

KMK06